



Naroa Antruejo - Miren Allende - Ainhoa Díez
Aixerrota BHI, 15-16

AURKIBIDEA

| | |
|-----------------------------------|----|
| Katixa Agirre | 3 |
| Sarrera | 4 |
| <i>Atertu arte itxaron</i> | |
| Kokapena | 4 |
| Gaia | 5 |
| Argumentua | 5 |
| Istorioa | 7 |
| Pertsonaiak | 7 |
| Egituraketa | 9 |
| Baliabideak | 10 |
| Iritzia | 11 |
| Bibliografia | 12 |
| Webgrafia | 12 |

KATIXA AGIRRE

Katixa Agirre Gasteizen, Araban, 1981eko urriaren 27an jaiotako euskal idazlea da. Ikus-entzunezko Komunikazioan doktoratu, Lolitaren mitoari buruzko tesi bati esker, eta gaur egun Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) irakasle moduan dihardu. Gainera, literatura, kazetaritza eta blogen arloetan aritzen da: Deia, Sautrela, Berria, Argia eta beste hainbat hedabideetan kolaboratzaile lanak egiten ditu eta 2004tik blogaria ere bada.



Bere lehen literatur lana, *Sua falta zaigu*, 2007an argitaratu zuen, ipuin eta istorio laburrek osatutakoa. Ordutik, helduei zein haurrei zuzendutako hainbat liburu argitaratu ditu. Haurrei zuzendutako liburuen artean *Paularen seigarren atzamarra* (2007), *Ez naiz sirena, eta zer?* (2009) eta *Patzikuren problemak* (2010) bereizten dira. 2010ean Amaia Lapitz saila hasi zuen (gazteei zuzendutako abenturazko nobela sorta). Helduentzako literaturan bere obrarik aipagarriena *Habitat* (2009) ipuin-liburua da. Bere lehen eleberria 2015ean argitaratu du, eta *Atertu arte itxaron* (2015) da, hain zuzen.

Sariei dagokienez, 2003an Ernestina de Champourcín poesia saria irabazi zuen eta 2005ean Emakumeak Kontari ipuin-lehiaketa. 2007an Igartza saria jaso zuen, hasieran Etxetik irten gabe izenburudun ipuin-liburua idazteko, baina *Habitat* izenburuarekin argitaratu zuen azkenik 2009an.

SARRERA

Katixa Agirrek 2015. urtean plazaratu zuen gaur egunera arte bere azkenengo argitalpena izan den eleberria. Nahiz eta oraindik saririk lortu ez izan, road movie moduko eleberria hainbat egunkaritan aipatu zein aztertua izan da (Argia, Gara eta Deia, besteak beste). Eleberriaren protagonista narratzailea izanik, bere bizitzan zehar egindako bidaia bat aurkezten dio irakurleari, bikotekidearekin batera egiten dabilena Euskal Herrian zehar.

Liburuaren gaia gizakion barne gatazkak eta bizitzaren errealitate korapilatsua izanik, bikote maitemindu eta hasieran bateratua dirudien Uliak eta Gustavok batera Euskal Herrian zehar egiten duten bidaia izango da gertakari guztien abiapuntua; bidaia fisikoa izateaz gainera intelektuala ere izango da.

Neskaren jaioterriari buruzko gauza berriak aurkitzen dituzten aldi berean, haien bizitzetako sekretu ezberdinak aitortzen dizkio Uliak irakurleari. Isileko ezaugarri horiek

ezagutzera ematen diren heinean, bikotearen arteko harremana gero eta ezegonkorragoa bihurtzen da. Ezegonkortasun hori, kotxez egiten duten bidaian islatzen da; haien artean zintzo izango direnean, istripu bat dute errepidean.

Eleberria aurrera doala, hasieratik presente dagoen musikaren papera garatu egiten da Uliaren etorkizunarekin bat eginez eta bikote bizitzaren murriztapen bat bilakatuz; izan ere, Uli Britten musikagilearen bizitzan oinarrituriko doktoregoa egingo du Londresen, Gustavok Madrilen jarraitzen duen bitartean.

Bi istorio ezberdin kontatzen dira liburu honetan; bata Uliak lehenengo pertsonan kontatzen duen bidaia eta bikotearen bizitzari buruzko kontaketa da, eta bestea, Benjamin Britten eta Peter Pears musikarien bizitzetako pasarte ezberdinak.

Euskal Herrian zehar gertatzen den bidaia izanda, hainbat leku geografikoren izenak aipatzen dira. Arabatik hasita, ondoren Bizkaiko herri eta hiri ezberdinetatik igarota Gipuzkoa ere bisitatzeko gai izango da bikote gaztea.

Protagonista den Uli gazteak lehenengo pertsonan kontatzen du istorioa. Nahiz eta lehenengo pertsonan idatzita egon, ia eleberri guztia norbaiti zuzenduta dago. Gehienetan Gustavori idazten badio ere, zenbait pasarteetan beste pertsonaiei bideratzen dizkie kontakizunak.

Idazleak erabiltzen duen estiloa nahiko konplexua eta jarraitzeko ez oso erraza da. Euskara batu txukunean idatzi du Katixa Agirrek eleberria.



ATERTU ARTE ITXARON



KOKAPENA

Atertu arte itxaron road movie tankerako eleberri bat da. Gustavok eta Uliak Euskal Herrian zehar bidaia egitea erabaki dute, azken honen sorteria hobeto ezagutzeko asmoz. Horrela, euren auto berrian, Euskal Herriko lurraldeak ezagutzuz doaz: Bilbo, Lekeitio, Gasteiz, Algorta, Eibar, Donostia, Baztan...

Eleberriak ordena kronologikoa jarraitzen du, nahiz eta Uliak (istorioaren protagonista eta narratzailea) iraganeko zein orainaldiko hainbat kontu burura ekarri, kontaketa nagusiarekin itxurazko loturarik ez dutenak, eta istorioan tartekaturik agertzen diren. Hala nola, bere musika ikasketak burutzeko Benjamin Britten konpositore ingelesari buruzko tesia, 70eko hamarkadako Gasteizko kale borrokak, Gustavo eta Uli ezagutu zirenekoa, Madriloko M-11ko atentatuak, edota Uliaren gaztaroko kontuak.



GAIA

Eleberrian gizakion barne gatazkak lantzen dira batez ere, eta horien aurrean ditugun jokaerak; izan ere, protagonistak bere bizitzan zehar jasandako gertakariak oroimenera ekartzen ditu Euskal Herrian zeharreko bidaia honetan. Gainera, Uliaren barne bakarrizketak eta gogoetak ugariak dira, istorioan zehar gertatzen zaizkion arazoei buruz, zein iraganean gertatutakoei buruz egindakoak.

Bikote harremanei buruz aritzen den eleberria ere bada, Gustavo eta Uliaren maitasun istorioa hasieratik nolakoa izan den kontatzen delako nobelan tartekatutako pasarte batzuetan. Are gehiago, istorio honi zailtasunak ekarriko dizkion pasarteak suertatzen dira nobelan.

Bi gai horiek, gizakion barne kezkek eta maitasun istorioan sortutako zailtasunak, izango dira narrazioaren amaieran auto istripua sorraraziko dutenak, nola edo hala.



ARGUMENTUA

Uliak bere sorterria erakutsi nahi dio bere bikotekide Gustavori, eta horretarako udako oporrak baliatuz, Euskal Herrian zehar kotxez egiteko ibilbide lasai bat egitea erabakitzen dute.

Gustavorentzat, bidaiak basatiak izan ziren gizakien lurraldeak bisitatzea dakarren bitartean, Uliarentzat jaioterrira bueltatzea eta aspaldiko kontuak gogoratzea inplikatzeko du.

Bidaia honetan bikoteak hobeto ezagutzen dute elkar; izan ere, hasierako harmonia hautsiko duten hainbat gertakari suertatuko dira Euskal Herrian zeharreko bidaiari. Iraganeko sekretuak azaleratuko dira kontakizunak aurrera egin ahala, eta baita Uliaren barne gatazken zergatia ere. Faktore hauek ahalbidetuko dute amaiera, hau da, bikoteak bidaia amaitzear doanean jasaten duen istripua. Azkenik bikotearen arteko tentsioa nabaria denean, Uliak Londresera alde egiten du bere musikako doktoregoa burutzera eta, bide batez, bizitzen ari den egoeraz hausnartu dezake.



ISTORIOA

Ulia eta Gustavo, Madrilen bizi den bikotea, Euskal Herria aurkitzeko bidaia hasi zuten erosi berria zuten eta Gustavok ikaragarri maite zuen BMWan. Uliak bere mutil-laguna Euskal Herria ezagutzeko eta hango edertasuna erakusteko prestatu zuen bidaia.

Nahiz eta Espainian zehar hainbatetan bidaiatuak izan, ez ziren inoiz Uliaren jaioterrian zehar behar bezala aritu.

Lehenengo geldiuena Araba izan zen haien bidaian eta Uliaren amaren etxean geratu ziren, ama etxean ez zegoelarik. Etxe horretan eman zuen Uliak bizitza erdia, ama eta Josebarekin batera. Nahiz eta Joseba bere aita biologikoa ez izan, horrela portatu zen berarekin hasi-hasieratik. Uliaren aita bera oraindik jaio ez zenean hil egin zela azaldu zioten behin baino gehiagotan bere amak eta Josebak eta hari buruz duen oroitzapen bakarra antzinako irudi bat baino ez da; hain zuzen ere, gogoratu dezakeen unetik Joseba etxean ez zegoenean, aitaren irudi bat erakusten zion bitartean haien arteko sekretua zela esaten zion amak.

Hala ere, Uliaren aita Jose Mari Ortiz de Zarate ETako preso delarik aurkitu zuen Uliak. Bere amak, Mariluzek, Ulia izan eta lau hilabetetara Joseba ezagutu zuela eta haien arteko harremana gero eta hobea zela ikustean, egia lurperatzeko modua aurkitu zuten. Modu berekoian eta Uliaren zein haien bizitza errazagoa izateko estakuruarekin, Uliaren aita hil egin zela esatea proposatu zion Josebak Mariluzi. Bien arten prestatu zuten gezur hori eta ez zen izan Ulia heldua izan arte egia aurkitu zuela.

Mariluzek behin deitu zion Uliari norbait ezagutu zuela esanez, bere adineko gizona eta kartzelan zegoela adierazi zuen. Hori entzunda Uliak sinestezina zela pentsatu zuen, baina are irrealagoa iruditu zitzaion gutunen bidezko harremana izaten hasi zela jakitean. Izan ere, zenbait gutunen ondoren amak Granadara (bertako kartzelan zegoen Jose Mari Ortiz de Zarate) joatea erabaki zuen; beti ere, Uliari Kanariar uharteetara zihoala esanez.

Berria jakin zuen momentutik berrien itxaropean eta inoiz baino adiago aritu zen Ulia, bere aitaren berrien zain. Hala ere, Gustavori ez zion ezer ez esan. Ez zuen momentu egokirik topatu bere bizitza hankaz gora jarri izandako gertaera hori kontatzeko. Hala ere, bera ez da sekretu handi bat gorde duen pertsona bakarra.

Euren bidaia jarraitu zuen bikoteak eta Gabriel izeneko lagun batekin afaria izan ondoren Bilboko taberna alternatibo batean zeudela, Gustavok ezagutzen zuen Sarah izeneko kazetari gazte batekin aurkitu ziren. Oso neska erakargarri moduan deskribatzen du Uliak, bai eta beregan konfiantza handia duen gaztea iruditu zitzaion. Aurretik agertu ez bada ere, behin Bilbon berarekin topo egin zutela behin eta berriro gurutzatu da euren bidean.

Sarahrekin aritu ziren azkenengo gauaren ostean, Josebaren baserrirako bidaian zehar ez zuten hitz egin Uliak eta Gustavok; bertara ailegatzean, Uliak zeukan ajea jarri zuten aitzakiatzat. Afaria arraro baten ondoren, Ulia eta Joseba aurretik insomnia kideak izandakoak, bateratzen dira gauean eta haien bizitzari buelta itzela emandako gertakizunari buruz aritu ziren. Horrela, Josebak Ulia jaioberria zenean, Mariluzek eta berak hartu zuten erabakiari buruz hitz egin zion eta Gustavok gaiari buruz ezer ez zekiela adierazi zion besteak.

Hurrengo egunean, Gustavo eta Ulia kotxean zihoazela berriro ere aritu ziren isiltasunean eta irratia piztean bozgorailuetatik atera zen melodia politak urduritu zuen Gustavo. Zerbait kontatzeko beharra zuela nabaritu zion Uliak eta errepidetik arreta galduta zuela Sarahrekin oheratu zela esan zion. Hitz horiek adierazi bezain laster kotxearen kontrola galdu eta istripu larria izan zuen bikoteak.

Ulia ospitalean itzartu zenean, bera begira zeuden guztien artean Gustavo zegoen eta Sarahrekin gertatutakoaz argitu behar zela esaten zion bitartean, Uliak bere barnean gorde izandako sekretuari buruz hitz egin behar ziola esan zion.

Ospitaletik atera eta gutxira Londresera joateko aukera eman ziotela ikusi zuen Uliak eta bertara joan zen bakarrik. Izan ere, Ulia abeslaria izango zela erabaki zuen bere musika irakaslea izandako Asierrekin larrua jo ondoren; berak egindako mina beregandik urruntzeko ideiarekin. Zenbait urtetan ondo aritu ondoren, kiste batek itxaropena guztiz baztertu zion. Nahiz eta abesten jarraitu ezin ez, doktoratzea Londresen egiteko eskakizua bete zuen Gustavori ezer esan gabe.

Britten musikagilearen bizitzaren inguruan landu nahi zuen bere doktoregoa, ikuspuntu berri bat aurkezteko asmoz.



PERTSONAIAK

LEHENENGO MAILAKO PERTSONAIAK

ULIA

Ulia emakume euskalduna da, baina Madrilen bizi da bere bikotekide Gustavorekin. Unibertsitatean dabil doktoretza ateratzen, Benjamin Britten musikari ingelesean oinarrituta, tesia egiten. Mutil-lagunari sorterrria erakusteko gogoak dituenez, Euskal Herrian zehar kotxe bidai bat prestatzen dute.

Bere ama Mariluzekin eta bere aita balitz moduan jokatu izandako gizonarekin, Josebarekin, bizi zen gazte zenean eta unibertsitatera joan baino lehen.

Bere aita biologikoa bera oraindik jaió ez zenean hil egin zela pentsatzen bizi izan da hainbat urteetan zehar. Amak, ordea, hogeita lau urte ondoren bere aita Jose Mari Ortiz de Zarate ETako kidea dela esan zion. Izugarrizko shock-a suposatu dio, estatu-mailan ezaguna den "hiltzailea" eta bere bizitza osoa hankaz gora jarriko duen ekitaldi bat dela kontuan izanik.

Azkenean, Londresen bukatuko da Uliak bere doktoretza bertan egiteko aukera jasoko duelako.

Gazte zenean bere musika irakaslea izandako Asierrekin izandako pasadizoa zela bide, abeslaria izatea erabaki zuen. Zenbait urteetan gustura aritu zen horretan; kiste batek, ordea, ogibide berria bilatzeko beharra ekarri zion.

GUSTAVO

Gustavo Madrilen bizi da bere neska-laguna Uliarekin eta unibertsitatean lan egiten du, hala ere Gaztelako gizona da. Goi mailako klasea familiatik datorkio eta horregatik gustu garestiak ditu, BMW berria, esate baterako.

Gaztetan Avilako Gazteria Anarkistetan aritu zen; hori dela eta, Gustavok manifestazioak gustuko ditu eta jakinik Uliaren behin baino gehiagotan manifestazioak ekidin nahi ditu bidaiaren zehar.

Bisitatzeko duten Euskal Herriko herri guztiekiko erakarpena erakusten du Gustavok, bai eta bertako gastronomiarekiko ere.

Sarah izeneko kazetariarekin izan zuen abentura. Sarahren portaera bitxiak eta bere bat-bateko etengabeko presentziak, Uliari gertatutakoaz hitz egitera bultzatuko dio. Kotxean batera doazela, irratan dagoen abestiak urdurituko du eta bere barnean sortuko den tentsioak errepidetik atentzia kenduko dio eta istripu bat izango du bikoteak.

BIGARREN MAILAKO PERTSONAIAK

SARA

Kazetari erdi britaniarra da, eta Euskal Herriko bidaiaren zehar hainbat aldiz topatzen dute Uliak eta Gustavok. Gustavok eskutatzen duen sekretua neska misteriotsu honengan oinarritzen da, eta istorioaren garapenean eragina du. Behin eta berriz topatuko dute Uliak eta Gustavo bidaiaren zehar; Bilboko tabernan, kalean, hainbat telefono-dei...

Era ez-zuzenean bera izango da Uliak eta Gustavok izan duten istripuaren eragilea.

MARILUZ

Uliaren ama da, eta Jota izeneko mutil laguna zuela geratu zen haurdun. Hala ere, Jota kartzelan sartu zutenetik Joseba izeneko gizonarekin ezkondu dago, hau da, Uliaren aitaordea. Dena dela, Jotaz maiteminduta egoten jarraitzen du. Isotokia aurrera doala Uliari berri emango ziola aurkituko dugu, bai eta, denbora luzean zehar Jotarekin harremanetan ibili dela.

JOTA

Jota edo Ortiz de Zarate deitzen da Uliaren benetako aita eta ETAko kidea izateagatik kartzelan sartuta dago. Uliak eskutatzen duen sekretua bere aitaren iragan ilunean oinarritzen da, eta horrek Gustavorekin duen harremanean ondorio txarrak ekartzen ditu, gehiago aldentzen direlako.

BENJAMIN BITTER

Musikari eta konpositore ingelesa da. Uliaren doktoretzaren tesia egiteko pertsona honen jarrera lasaia eta pazisista oinarritzen da.



EGITURAKETA

Eleberri honen egiturari dagokionez, zenbait berezitasun aipa daitezke. Nobelan kontatzen den istorio nagusiaren egitura lineala da, hots, Uliak eta Gustavok Euskal Herriko txokoetan barrena egiten duten bidaia modu kronologikoan gertatzen da. Hala ere, Ulia, protagonista bera kontakizunaren narratzailea denez gero, egoera desberdinen aurrean egiten dituen hausnarketak edota bere oroimenera datozkion oroitzapenak ere tartekatzen dira narrazioan; flash-backez josita dago. Gainera, istorioan garrantzi handia hartzen duten Sarahren (Gustavoren ezaguna den kazetaria) artikuluren bat ere tartekatu izan da nobelan.

Baina Uliaren hausnarketa pertsonalez gain, bere gurasoen istorioa ere kontatzen da, bata bestearengandik banatuta dauden kapituluetan. Horri lotuta, Uliak bere aitaren benetako identitatea aurkitzen duenekoa ere modu berean agertzen da kontatuta, hasieran itxurazko loturarik ez duten, baina guztiz lotuta dauden kapituluetan.

Istorio nagusian tartekatzen da ere Uliak, bere doktoregoa lortzeko asmoz, Benjamin Britten musikagile britaniarraren bizitzari buruz aurkitutako hainbat bitxikeria.

Eleberria kapitulutan banatuta dago, eta horietako bakoitza zenbaki batez adierazten da. Kapituluaren luzera, oro har, nahiko laburra da; hortaz, nobelak kapitulu kopuru handia du, hirurogeita sei hain zuzen ere.



BALIABIDEAK

Lehenik eta behin, obra hau nahiko bitxia eta berezia da, idazleak erabilitako estiloa konplexua eta jarraitzeko zaila delako.

Deskribatzeko metodoari dagokionez, deskribapenak ez dira oso zehatzak; Katixa Agirrek, pertsonai bakoitzari buruz datu solte batzuk bakarrik aipatzen baititu. Askotan, deskribapen zuzena erabiltzeaz gain, irakurlea pertsonaiei buruzko ideiak jaso ahal izateko, iritziak edo bakoitzak egindako zenbait ekintza erabiltzen ditu idazleak. Hala ere, deskribapenak pertsonaia bakoitzari egokituta daude.

«Gabriel Deustuko unibertsitateko zuzenbide irakaslea da. (...) Egia da bi ume txiki dituela eta bizitza konplikatu samarra, maite ez duen emakume baten alboan (hala diozu zuk behintzat), baina Abandoko bere pisua esaten duen bezain handia baldin bada, ez dut ulertzen zergatik ez gaituen bertan hartu.» (74)

Bestetik, eleberriaren narratzailea Ulia, protagonista, da. Lehenengo pertsona (singularra eta plurala) bere istorioa kontatzen digu eta norbaiti zuzenduta dagoela dirudi, Gustavori hain zuzen.

Bere ikuspuntutik deskribatzen ditu bai pertsonaiak bai gertaerak eta berak gauzak deskribatzen dituen heinean aurkituko ditu irakurleak.

«Demagun kotxe berria probatu nahi duzula. Errodatu esaten duzu. Demagun kotxe berria errondu nahi duzula. Demagun oporraldi lasaia behar duzula, ardo ona eta itsasoa.» (11)

«JK kokteleriaren atean agurtu gara, eta agertu den moduan desagertu da emakume garaia gure bizitzetatik.» (87)

Gainera, bi elkarrizketa mota daude. Alde batetik ohikoena, gidoitxo batekin erabiltzen dena eta bestetik, narratzailearen bakarriketak, hau da, Uliak, bere barne mundua agerian uzten digunean.

«—Ederra zara.
—Zaharra naiz.
—Ederra.» (112)

«Ohi baino gehiago luzatu naiz bainugelan, eta ohera jo dudanerako lo zaude. Zurrun-zurrun. Hori erraztasuna zurea. Gorrotagarria. Buruak bueltak ematen dizkit eta oka egiten dudala imajinatzen dut: ez da perspektiba txarra ere.» (86)

«Baina ni ez nintzen Aldeburghera joan. Ez nintzen aireportura ere joan. Metroa hartu eta, burua husturik, begirada lurrerantz, Mendez Alavaro geltokira jo nuen.» (124)

Esan beharra dago, eleberrian nabariak direla beste hizkuntza batzuetako hitzen zein esaldien agerpenak (kasu batzuetan baita abesti zatiak ere), bereziki ingelesezko (*gentleman, I know...*) eta gaztelaniazkoak, baina neurri txikiago batean frantsesezkoak ere bai (*camping à la ferme*). Aipatutako azken hizkuntza honetan aipagarriak dira Sarahk idatzitako artikulua; izan ere, artikulua dauden kapitulu guztiak gaztelaniazkoak dira (50. eta 24. kapituluak esaterako).

«Yeah now I'm rolling down this California five
With your laughter in my head
Gonna have to block it out somehow to survive
'cuz those dreams are dead
And I'm alive» (173)

«That was so sweet a melody» (131)

«¿Y qué tiene de malo la playa de Zarauz, señoritas?» (91)

Eleberrian zehar onomatopeien erabilera oso ugaria da. Hainbat soinuren hotsak islatzeko erabiltzen duen baliabidea da hau.

«(...), plast!» (9)

«Pum-pum-pum» (23)



IRITZIA

Aztertu berri dugun *Atertu arte itxaron* eleberria bitxia eta berezia da alderdi ezberdinetatik begiratuta. Deigarria da oso Katixa Agirrek road movie moduko nobela egin izana euskal lurraldeetan zehar, bereziki zinemagintzako generoan oinarrituta egoteagatik. Gainera, bidaiaren hasieran nabaritzen den bake sentimendua kontuan izanik, ezin daiteke aurreikusi eleberriaren amaiera korapilatsua.

Katixa Agirrek nobelan zehar erabiltzen duen estiloa erakargarria da. Nahiz eta bi protagonistek maiz ibiltzen diren solasean hainbat gai intelektuali buruz, idazleak primeran konbinatu ditu bai kutsu intelektualeko solasak, bai protagonistaren barne bakarriketak, baita eguneroko elkarrizketak ere.

Eleberrian zehar istorio nagusitik aldentzen diren pasarteak tartekatu izanak bizitasuna ematen dio nobelari. Hala ere, teknika hori erabiltzeak zailtasunak sor ditzake nobela ulertzerako orduan. Izan ere, istorioa nahiko aurreratuta egon den arte, zaila egin izan zaigu tartekaturiko pasarte horiek istorioarekin zer lotura duten bereiztea. Are gehiago, hasiera batean eleberriaren irakurketa oztopatu izan dute, nahiz eta amaieran istorioa ulertzeko funtsezkoak izan diren pasarte horiek.

Eleberriak jorratzen dituen gaiei begira, bizitzarekin estuki loturiko gertaerak direla argi dago. Izan ere, bikoteen arteko harremanetan askotan egoten dira Uliak eta Gustavorenean bezalako gorabeherak. Nahiz eta euren lagunek bikote perfektua direla pentsatu, egia da sekretu asko ere badituztela, eleberrian aurrera egin ahala argitara ateratzen direnak. Horrek nobelari errealismoa ematen dio, pertsonaia akastunak errealagoak baitira.

Beste alde batetik, istorioan zehar pertsonaiek duten papera ere aipatu behar da. Euren arteko elkarrizketetan lexiko erraza erabiltzen du idazleak, euskara batuan idazten duelako, beraz irakurtzeko erraza eta azkarra da. Era berean, pertsonaia oso ondo egokituta daude istorioaren kokapen bakoitzean. Hala ere, idazleak ez du pertsonaien deskribapen sakonik egiten; Uliaren ikuspuntutik deskribatzen ditu eta ez du datu zehatzik ematen.

Horrez gain eleberriaren beste aspektu berezi bat, Uliak Gustavori idatzitako nobela dela dirudi, bere bihotza irekiz eta bikoteak egindako bidaian zehar berak izandako sentimenduak eta egindako hausnarketak adieraziz, bi pertsonaien arteko sekretu guztiak ezabatzeko eta bikotean bakea eta konfiantza berrezartzeko asmoz.

Amaitzeko, Katixa Agirrek eleberriari ezarritako estilo bitxi eta misteriotsuari esker, irakurlea Uliak kontatzen dituen hainbat istorioak bakar batean lotzeko eta batzeko irrikaz dago momentu orotan, hau da, nobelaren amaieran zer gertatuko den ezin da aurreikusi.

BIBLIOGRAFIA

Atertu arte itxaron, Katixa Agirre. 2015, Elkar.

WEBGRAFIA

https://eu.wikipedia.org/wiki/Katixa_Agirre

<http://www.idazleak.eus/euskara/idazleak/katixa-agirre-miguelez?h=A>

<http://kritikak.armiarma.eus/?p=6522>

<http://www.atalak.eus/ikasgela/nola-egin/il-gida/index.html>